

Software librea: programatzaileen paradisia

Olatz Orobengoa Guridi

Elhuyar

Software librea programak dohainik lortzearekin erlazionatzen dugu batik bat, baina askorentzat mugimendu berritzailea da informatikaren munduan.

ISTORIO HONEN HASIERA 1984AN KOKATU BEHAR DA, eta Richard M. Stallman izeneko programatzaile estatubatuarra da bere protagonista. Software librearen asmatzailetzat hartzen da programatzaileen munduan.

Garai haietan, Stallmanek programazio-enpresa batean lan egiten zuen. Enpresako programatzaileen artean oso ohikoa zen iturburu-kodea agerian zuten programak trukatea izan zitzairenen arazoak konpontzeko eta hobekuntzak sartzeko, eta Stallmanek ikusi zuen truke horrek onura handiak ekartzen zizkiola programen garapenari.



ARTXIBOKUA

Enpresan sortu zen truke-sarea mundu osora zabalduko balitz, sortuko ziren programen garapena eta ideia-jarioa izugarria izan zitekeela iruditu zitzaion. Baina arazo handi bat zeukan aurrean: ohiko programek iturburu-kodea ezkutuan daukate, merkataritza sekretutzat hartzen baita eta ezin baita programa horretatik ezer eraldatu. Stallmanen iritziz, horrekin ideien jarioa mugatzea besterik ez da lortzen. Beraz, iturburu-kodea agerian duen softwarea, hau da, software librea, bere kabuz eraikitzen hasi zen Stallman.

Software librea eta Linux

Lehenik eta behin, sistema eragile guztiz librea eraikitzen hasi zen Unix sistema eragilea oinarritzat hartuta. Proiektuari GNU izena eman zion eta, aldi berean, software librea bultzatzeko Free Software Foundation deritzon fundazioa sortu zuen. Linus Torvaldek Linux deitu zuen iturburu-kodea sistema



eragile horretara batzean, gaur egun Linux sistema eragiletzat hartzen dena sortu zen. Hala ere, kontuz, benetako izena GNU/Linux sistema eragilea da, eta Linux iturburu-kodea baino ez da.

Gaur egun, sistema eragile hori mundu osoan famatu egin da, gehienbat software librea delako. Edozeinek eskura dezake programa Internetetik, eta bakoitzak bere erara manipulatu. Software librearen definizioa guztiz betetzen du: erabiltzaileak exekuta, kopia, bana, iker, alda eta hobe dezakeen programa bat da.

“software librea edozeinek exekuta, kopia, bana, iker, alda eta hobe dezakeen programa bat da”

Azken finean, hori izan da GNU/Linux-en arrakasta nagusia. Programaren iturburu-kodea agerian dagoenez, bere funtzionamendu osoa azter daiteke, eta bakoitzaren beharretara moldatu. Gainera, akatsik egonez gero, bakoitzak konpon ditzake eta ideia berriak izanez gero, aplikatu. Programa software librea denez, gerora egiten diren hobekuntzekin lortzen den programaren bertsioa ere librea da, beraz, GNU/Linux erabiltzen duten beste guztiak hobekuntza horietaz baliatu ahal dira eta aurretik izan zitzaizkeen akatsak eta arazoak zuzendu. Horrekin programa oso dinamikoa lortzen da, momentuko arazoak gainditzeko gaitasuna duena, eta, diotenez, oso segurua.

Hori guztia, noski, orain dela ia hogei urte hasitako proiektu batetik abiatuta lortu da. GNU/Linux sistema eragileak izan duen arrakastak beste programa libre gehiago agertzea ahalbidetu du, eta software librea bultzatzen duen mugimendua ezagutaraztea.

Netscape 7.0 prest



la abisatzeko sistema du, eta gordetako mezuak sailkatzeko aukera ere ematen du.

Hiru bertsio ezberdin jaitsi ahal izango dira Internetetik: arakatzaila bakarrik duen bertsioa (9 MB), gomendatutako atal guztiak eta posta barne dituen bertsioa (12,6 MB) edo bertsio osoa, ikus-entzunezko plug-in-ak eta Sun Java 2 barnean dituena (30,8 MB).

Netscape-ren 7.0 bertsioa dagoeneko prest omen dago. Bertsio berri horretan Netscape 6.x-ek zituen akatsak zuzendu dituzte, eta ezaugarri berriak gehitu: Web orri bat baino gehiago leiho bakarrean ikustea ahalbidetzen du, baita web orri bateko hitz batetik abiatuz bilaketa egitea ere. Gainera, mezu elektronikoko berriak heldu dire-

Copyleft

Software libreak eta hortik eratorritako programa berriek libre izaten jarraituko dutela bermatzeko, Copyleft deritzona sortu da. Copyleft copyright famatuaren aurkakoa ez, baizik kontzeptu paraleloa dela diote. Copyleft-a dagoenetik, norbaitek programa libre bat hartu, bere erara moldatu eta software arrunt moduan salduz gero, hots, iturburu-kodea ezkutatzuz gero, bere aurretik lanean ibili direnen aurka egiteaz gain, legearen aurka ere egingo luke.



Errentagarritasunari begira

Software librearen aurka dauden enpresek diote mugimendua jabetza intelektualaren aurka doala eta diru-galtze izugarria izan daitekeela, Internetetik dohainik lortu ahal den programa batek ez baitio egileari inongo irabazirik ekartzen. Hala ere, Stallmanek berak argi utzi nahi du software librea izateak ez duela esan nahi errentagarria ez denik. Programa libre bat sortzen duen edozein libre da programa hori saltzeko,

libre izaten jarraitzen duen bitartean. Baina nork erosiko du programa, Internetetik dohainik jaitsi badaiteke? Software librea egiten duten programatzaileek ez dute diru askorik irabazten programak saltzetik, baina bai aplikazio espezifikotatik.

Programak enpresen beharretara moldatuz, mantentze-zerbitzuekin edota material osagarrien salmentarekin (eskuliburuak, luxuzko edizioak) lor daiteke dirua. Baita enpresek programa espezifikokoak garatzeko eman ditzaketen diru-laguntzekin ere.

Fundaziokoen ustez, software librearen filosofia eta onura denak ezagutzean, gero eta enpresa gehiago egongo dira programa horietan interesatuta, eta diru gehiago inbertituko da libreak diren programak garatzeko.



ARTXIBOKOA

Richard M. Stallman.